



Eusko Jaurlaritzak Olatz Unamunzaga izendatu du Neiker zentroko zuzendari berria. Argazkia: Utzitakoa

Olatz Unamunzaga, Neiker-ko zuzendari nagusi berri

Eusko Jaurlaritzak Olatz Unamunzaga izendatu du Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren mendeko Neiker zentoko zuzendari nagusi berria

✎ E. F. Domínguez
NTM

GASTEIZ – Eusko Jaurlaritzak Olatz Unamunzaga izendatu du Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren mendeko Neiker teknologia zentroko zuzendari nagusi berri, Leire Barañano ordezkatuz. Jaurlaritzaren arabera, izendapenak “indartu egiten ditu Neikerren berrikuntza estrategia eta Euskadiko nekazaritzako sektorearekiko lotura, eta bultzatu egiten du nekazaritza eta abeltzaintzako jakintzaren transferentziarekin nahiz garapen jasangarriarekin duen konpromisoa, alderdiok funtsezkoak baitira nekazaritzako elikagaien sektorearen lehiakortasunerako”.

Olatz Unamunzaga Biologian lizentziaduna da EHU Euskal Herriko Unibertsitatean eta Nekazaritza Zientzietan doktorea Zaragozako Unibertsitatean. Ibilbide nabarmena du elikagaien sektorearen ikerketan eta kudeaketan. Hamarkada

bat baino gehiago darama Neikerren lanean, eta funtsezko karguak izan ditu Berrikuntza eta Teknologia arduradun gisa. Kargu horretan, proiektu estrategikoak zuzendu ditu nekazaritzako sektorearen modernizazioa eta jasangarritasuna lortzeko, adibidez *Gen i Agroalaves* izeneko proiektu sektoriala. Unamunzagak prestakuntza osagarria du enpresa zuzendaritzan (MBAe3), eta lidergo, proiektu kudeaketa eta komunikazio eraginkorrerako duen gaitasunagatik nabarmentzen da. “Konpetentziok funtsezkoak izango dira Neikerren buru beteko duen aro berriari ekiteko”, ziurtatu dute.

Kargua hartuta, zuzendari berriak Neiker sendotu asmo du nekazaritzako elikagaien ikerketako erreferente gisa, bai eta nekazaritzako sektoreari egindako ezagutza transferentzia indartu ere. “Neiker egoera ezin hobean dago, eta %80tik gorako arrakasta tasak ditu askotariko deialdietan. Lorpen horrek lantaldea bikaina dela erakusten du, baina haratago joan behar gara: gure

ikerketak azken nekazari, abeltzain eta basogileari iristea lortu behar dugu”, esan du. Leire Barañano aurreko zuzendari nagusiak utzitako ondareari jarraikiz, Unamunzagak lehentasuna da sektorearekiko harremana estutzea entzute aktiboaren eta parte hartuzko ikerketaren bitartez, nekazaria berrikuntzaren erdigunean jarrita.

“Nahi dugu gure lanak benetako eragina izan dezan nekazaritzako elikagaien sektorearen lehiakortasun eta jasangarritasunean, haien premiei erantzuten dieten tresnak eta irtenbideak emanez”, zehaztu du.

EKIMENA Bestalde, EHU Euskal Herriko Unibertsitateko HiTZ zentroak *Ebaluatoia* jarri du martxan, euskarazko txatbot irekia auzolanean hobetzeko bi asteko ekimena. ChatGPT eta antzeko eredu itxien pare edo hobeto dabilen euskarazko tresna irekia sortzea da helburua.

EHUko iturriek jakinarazi dute, Latxa euskarazko hizkuntza eredu txatbot bihurtzeko lanean

ari da HiTZ zentroa, eta, aldi berean, txatboten kalitatea neurtzeko bide berriak irekitzen. “Hizkuntza ereduak adimen artifizialeko ereduak dira, giza hizkuntza ulertu eta sortzeko ikaskuntza automatikoko teknikak erabiltzen dituztenak. OpenAI edo Google eta antzeko eredu itxien pare edo hobeto dabilen euskarazko txatbot irekia sortzea da HiTZ zentroaren helburua”, azaldu dute.

Horrela, ekimenean parte hartzea “oso erraza eta dibertigarria” da: ebaluatoia.hitz.eus webgunean sartu, galdera edo eskaera egin, eta aukeratu zein den erantzun hoberena. Ekimenaren lehen fasean bezala, bigarren fase honetan ere lehiaketa eta sariak egongo dira. Asteazken honetatik apirilaren 2ra bitarte egongo da parte hartzeko aukera.

Eneko Agirre HiTZ zentroko zuzendariak esan duenez, “euskarazko txatbota eraikitzeko bidean ikerkuntzako hainbat galdera berri planteatu zaizkigu. Gure helburua

ez da bakarrik euskarazko txatbot hoberena eraikitzea, eta euskaraz gaztelaz bezain ondo ibiltzea”. “Hori lortzeko bidean ikerketa egiten ari gara, eta ikasten duguna argitalpen zientifikoetan kaleratuko dugu, jorratzen ari garen metodologia eta ikasten duguna beste hizkuntza askotarako ere baliogarria da eta”, azaldu du.

Horregatik abiatu dute *Ebaluatoia*, “ezinbestekoa baita erabiltzaile eskaldunek txatbotak erabili eta hoberena zein den aukeratzeko laguntza”. Ekimenean, erabiltzaileak eskaera bat egingo du webgunean, eta honek bi txatbot ezberdinen erantzunak emango dizkio bata bestearen ondoan, erabiltzaileak erantzunen artean onena aukeratu dezan. Alborapenak ekiditeko, erabiltzailearen bozka itsua da, hau da, erabiltzaileak ez daki zein bi txatbot ari den epaitzen. Txatboten sailkapena osatzeko xakean baliatzen den ELO ebaluazio sistema erabiltzen da. Ereduak hasierako puntuazio arbitrario batetik abiatzen dira. ●

XEHETASUNEZ

● **Informazioa.** Kargua hartuta, zuzendari berriak Neiker sendotu asmo du nekazaritzako elikagaien ikerketako erreferente gisa, bai eta nekazaritzako sektoreari egindako ezagutza transferentzia indartu ere. “Neiker egoera ezin hobean dago, eta %80tik gorako arrakasta tasak ditu askotariko deialdietan. Lorpen horrek lantaldea bikaina dela erakusten du, baina haratago joan behar gara: gure ikerketa azken nekazari, abeltzain eta basogileari iristea lortu behar dugu”, esan du. Leire Barañano aurreko zuzendari nagusiak utzitako ondareari jarraikiz, Unamunzagarentzat lehentasuna da sektorearekiko harremana estutzea entzute aktiboaren eta parte hartuzko ikerketaren bitartez, nekazaria berrikuntzaren erdigunean jarrita. “Nahi dugu gure lanak benetako eragina izan dezan nekazaritzako elikagaien sektorearen lehiakortasun eta jasangarritasunean, haien premiei erantzuten dieten tresnak eta irtenbideak emanez”, zehaztu du.

● **Informazioa.** Eusko Jaurlaritzak Olatz Unamunzaga izendatu du Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren mendeko Neiker teknologia zentroko zuzendari nagusi berri, Leire Barañano ordezkatuz. Jaurlaritzaren arabera, izendapenak “indartu egiten ditu Neikerren berrikuntza estrategia eta Euskadiko nekazaritzako sektorearekiko lotura, eta bultzatu egiten du nekazaritza eta abeltzaintzako jakintzaren transferentziarekin nahiz garapen jasangarriarekin duen konpromisoa, alderdiok funtsezkoak baitira nekazaritzako elikagaien sektorearen lehiakortasunerako”. Olatz Unamunzaga Biologian lizentziaduna da EHU.